**EBAZPENA**, 2024ko azaroaren 13koa, Merkataritzko Zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita noiz hasi den 2024ko deialdiari dagozkion deskontu-bonuak trukatzeko aldia, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko merkataritza txikia suspertzeko eta merkataritza-sektoreko establezimenduetan eta hiri-merkataritzako jarduerarekin lotutako zerbitzuetan kontsumitzeko pizgarriak emateko «Euskadi bono-comercio/Euskadi saltoki-bonua» programaren esparruan.

**RESOLUCIÓN** de 13 de noviembre de 2024, de la Directora de Comercio, por la que se hace público el inicio del periodo de canje de los bonos-descuento correspondiente a la convocatoria del 2024, en el marco del programa para la reactivación del pequeño comercio local e incentivos al consumo en establecimientos del sector comercial y de servicios relacionados con la actividad comercial urbana de la Comunidad Autónoma del País Vasco «Euskadi bono-comercio / Euskadi bono-denda».

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2024ko urriaren 15eko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko merkataritza txikia suspertzeko eta merkataritza-sektoreko establezimenduetan eta hiri-merkataritzako jarduerarekin lotutako zerbitzuetan kontsumorako pizgarriak emateko «Euskadi bono-merkataritza/Euskadi saltoki-bonua» programaren 2024ko ekitaldirako deialdia argitaratu zen.

Mediante Orden de 15 de octubre de 2024, del Consejero de Turismo, Comercio y Consumo, se publicó la convocatoria para el ejercicio 2024, del programa para la reactivación del pequeño comercio local e incentivos al consumo en establecimientos del sector comercial y de servicios relacionados con la actividad comercial urbana de la Comunidad Autónoma del País Vasco «Euskadi bono-comercio / Euskadi bono-denda».

Agindu horren 8. artikuluko zazpigarren puntuak xedatzen duenez, deskontu-bonuak trukatzeko aldia atxikipen-aldia amaitu eta dagokion egiaztapena egin ondoren hasiko da, eta epe horren hasiera Merkataritzako zuzendariaren ebazpen bidez zehaztuko da, eta https://www.euskadibonodenda.eus webgunearen bidez jakinaraziko da. Artikulu horrek ezartzen du, halaber, truke-aldia 2024ko abenduaren 5ean amaituko dela

El punto siete de la base 8 de la mencionada orden dispone que el periodo para el canje de los bonos-descuento comenzará tras la finalización del periodo de adhesión y su correspondiente verificación y que el inicio de dicho periodo se determinará mediante resolución de la Directora de Comercio y se comunicará a través de la página web https://www.euskadibonodenda.eus. El citado artículo establece, asimismo, que el periodo de canje finalizará el día 5 de diciembre de 2024.

Azaldutakoagatik, eta 2024ko deialdiari dagozkion deskontu-bonuak trukatzeko aldia hasteko eguna ezarri

Por lo expuesto, y habiéndose establecido el día de inicio del periodo de canje de los bonos-descuento

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

denez, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko merkataritza txikia suspertzeko eta merkataritza-sektoreko establezimenduetan eta hiri-merkataritzako jarduerarekin lotutako zerbitzuetan kontsumorako pizgarriak emateko «Euskadi bono-merkataritza/Euskadi saltoki-bonua» programaren esparruan, honako hau,

correspondiente a la convocatoria 2024, en el marco del programa para la reactivación del pequeño comercio local e incentivos al consumo en establecimientos del sector comercial y de servicios relacionados con la actividad comercial urbana de la Comunidad Autónoma del País Vasco «Euskadi bono-comercio / Euskadi bono-denda»,

**EBAZTEN DUT**

**RESUELVO**

**Lehenengoa**. – Azaroaren 15ean ezartzea 2024ko ekitaldirako deskontu-bonuak trukatzeko aldiaren hasiera, agindu arautzailean ezarritakoaren arabera.

**Primero.** – Establecer el día 15 de noviembre el inicio del periodo de canje de los bonos-descuento para el ejercicio 2024 según lo establecido en la Orden reguladora.

**Bigarrena.** – Ebazpen hau https://www.euskadibonodenda.eus web-orrian argitaratzeko agintzea.

**Segundo. –** Ordenar la publicación de la presente Resolución en la página web https://www.euskadibonodenda.eus.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 13a

Gasteiz, a 13 de noviembre de 2024

IZASKUN GÓMEZ CERMEÑO
Merkataritzako Zuzendaria
La Directora de Comercio